KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2026ko maiatza

Aurkibidea

1. BPGaren aurrerapena

2. Lan merkatua

3. Inflazioa

4. Enpresarien konfiantza

5. Inguruneko hazkundea

6. NDFren aurreikuspenak

Eranskina

1.EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2026ko lehen hiruhilekoan

Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, urte arteko %1,3 hazi zen.

2. Okupazio tasa %71,5 izan zen lehen hiruhilekoan

Langabezia tasa %6,7an kokatu zen.

3. Inflazioak %3,4ra egin zuen gora martxoan

Azpiko inflazioa %3,0ra igo zen.

4. Enpresen konfiantza sendoagoa da euskal enpresen artean

Indize sintetikoa 135,2 puntukoan kokatu zen, maila altuetan eta estatuko batez bestekoaren gainetik.

5. Munduko hazkundea intentsitate desberdinetan hazi da lehen hiruhilekoan

Txina eta AEB hazi egin dira Europako dinamismo txikiagoaren aurrean.

6. NDFk aurreikuspenak jaitsi ditu Ekialde Hurbileko gatazkagatik

Erakundearen kalkuluen arabera, BPG globala %3,1 haziko da 2026an eta %3,2 2027an

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EAEko ekonomia %2,2 hazi zen 2026ko lehen hiruhilekoan

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%2,2



Eustaten hiruhilekoko kontu ekonomikoen aurrerapenaren arabera, euskal ekonomia %2,2 hazi zen urteko lehen hiruhilekoan aurreko urteko aldi berarekin alderatuta; Ekonomia Zuzendaritzak azken taula makroekonomikoan aurreikusitako erritmo berean. Hiruhileko arteko tasan, hazkundea %0,5ekoa izan zen, gorakada erresilientea islatuz, aurreko hiruhilekoetakoaren antzekoa.

Hazkundea, batez ere, zerbitzuen sektorearen eta, bereziki, eraikuntzaren jardueraren portaera onean oinarritu da. Hauek industriaren jarduera okerragoa (urteko lehen hilabeteetan uzkurtzen ari den IPIarekin), eta esportazioen beherakada konpentsatu baitute, azken hauetan urtarrilean eta otsailean urte arteko %4,5 eta %5,9 uzkurdura izanda, hurrenez hurren.

BARNE PRODUKTU GORDINA (BPG)

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA

%0,5



ENPLEGUA
Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA
%1,3



Lan merkatuari dagokionez, enplegua urte arteko %1,3 hazi zen lehen hiruhilekoan kontu ekonomikoen arabera, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, Ekonomia Zuzendaritzak aurreikusitakoa zertxobait gainditzen. Hazkunde horren ondorioz, 12.000 lanpostu inguru sortu dira 2025eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Horrela, euskal ekonomian milioi bat lanpostuak aise gainditzen dira.

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ordea, enpleguaren hazkundeak neurrizko bilakaera izan du aurreko hiruhilekoetako erregistroekin alderatuta, %0,2ko hazkundearekin, ekonomiaren bilakaera orokorra moteltzeko itxaropenarekin bat etorriz.

ENPLEGUA
Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA
%0,2



Iturria: Eustat.

Okupazio tasa %71,5 izan zen lehen hiruhilekoan

Okupazio tasa. guztira

Ehunekoa

1. HIRUHILEKOA

%71,5



Eustatek argitaratutako estatistika informazioak erakusten duenez, 16-64 urteko biztanleriaren okupazio tasak hobera egiten jarraitu zuen lehen hiruhilekoan, 2025eko aldi bereko %70,9tik egungo %71,5era igaro baitzen (sei hamarren gehiago). Sexuaren arabera, emakumeen okupazio tasak gizonenak baino bilakaera hobea izan du azken hiru urteetan. Hiruhileko honetan ere, okupazioak gora egin du bi taldeetan 2025aren aldean, baina gorakada pixka bat handiagoa izan da emakumeen artean (sei hamarren) gizonen artean baino (bost hamarren). Ondorioz, genero arrakala 4,7 puntura murriztu da, urtebete lehenago baino hamarren bat gutxiago. Oro har, hiruhileko positiboa da Euskadiko lan-merkatuarentzat, eta emakumeen parte hartzeak hazkunde bidean jarraitzen du.

Okupazio tasa. Emakumeak

Ehunekoa



Okupazio tasa. gizonak

Ehunekoa



Bestalde, Langabezia tasa %6,7koa izan zen lehen hiruhilekoan, hau da, hiru hamarren hobetu zen 2025eko aldi beraren aldean. Jaitsiera pixka bat handiagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino, %6,9ko eta %6,6ko tasak baitituzte, hurrenez hurren, aurreko urteko % 7,2ko eta %6,8ko tasen aldean. Nazionalitatearen arabera, Espainiako biztanleriaren langabezia tasa %6,0 inguruan mantentzen da (%5,9), urtetik urtera lau hamarren igo den arren. Aldiz, atzerritarrei dagokiena nabarmen murrizten ari da, 2025ean % 18,4 izatetik lehen hiruhileko honetan % 12,9 izatera igaro baita.

Langabezia tasa. Guztira

Ehunekoa



Langabezia tasa. Emakumeak

Ehunekoa



Langabaezia tasa. Gizonak

Ehunekoa



Langabezia tasa. Espainiarrak

Ehunekoa



Langabezia tasa. Atzerritarrak

Ehunekoa



Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Inflazioak %3,4ra egin zuen gora martxoan

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioak gora egin zuen martxoan, energiaren garestitze handiaren ondorioz, Ormuzeko itsasarteko tentsioak erregaien prezioetan eragin ondoren. Igoera ez da oraindik nabarmenki gainerako taldeetara zabaldu. Azpiko inflazioak modu neurritsuan egin zuen aurrera, zerbitzu eta ondasun industrialek gora egin baitzuten; elikagai landuak eta ez -landuak, berriz, otsailean baino gutxiago garestitu ziren.

KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2024	2025	2026ko martxoa	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,1	3,0	3,4	3,4
Azpiko inflazioa (%84,8)	3,2	2,6	3,0	2,6
- Elikagai landuak (%14,8)	4,6	2,1	2,9	0,4
- Industria ondasunak (%20,2)	1,2	0,9	0,5	0,1
- Zerbitzuak (%49,8)	3,5	3,4	3,9	2,1
Hondar inflazioa (%15,2)	2,6	5,2	5,7	0,8
- Landu gabeko janariak (%6,4)	4,0	6,8	5,1	0,3
- Energia (%8,8)	1,0	4,1	6,5	0,5

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



Elikagaien prezioa

Urte arteko aldakuntza tasa



Zerbitzuen prezioa

Urte arteko aldakuntza tasa



Indize orokorra urte arteko %3,4raino bizkortu zen otsaileko %2,4tik, batez ere energiak eta zerbitzuek bultzatuta. Zerbitzuen barruan, aisialdia, kirola eta kultura%2,4raino igo zen, eta jatetxeek eta ostatuek, berriz, %5,5erainoko gorakada izan zuten, inflazio handieneko taldeetako bat bihurtuz. Aseguruak eta finantza-zerbitzuak, 2025. urtearen amaieran baino motelago garestitzen badira ere, hazkunde nabarmena erakusten jarraitzen dute. Elikagaiek eta alkoholik gabeko edariek %3,6ko hazkundea neurritsuagoa izan zuten, otsaileko aurrerapen handiaren ondoren. Edari alkoholdunek eta tabakoak moteltze txikia izan zuten (%4,1), baina indizea gorantz bultzatzen jarraitu zuten. Etxebizitza eta hornidurak %2,6raino igo ziren, %1,0tik, energiaren garestitze handiagoko testuinguru batean. Garraioa izan zen indizearen hazkundearen eragile nagusietako bat, erregaien garestitzeagatik %5,2raino bizkortu baitzen; jantziek eta oinetakoek (-%0,1) eta informazio eta komunikazioek (-%0,4), berriz, inflazioari eusten lagundu zuten.

KPI talde nagusiak

Urte arteko aldakuntza tasa. 2026ko martxoa

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	**3,4**	**3,4**	**2,6**
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	3,6	2,7	2,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	4,1	4,5	3,2
Jantziak eta oinetakoak	-0,1	2,6	0,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,6	3,7	1,6
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,5	1,0	0,1
Osasuna	1,8	2,2	2,6
Garraioa	5,2	5,3	5,2
Komunikazioak	-0,4	0,1	-0,4
Aisia eta kultura	2,4	2,4	2,0
Hezkuntza	2,2	2,6	3,8
Jatetxeak eta hotelak	5,5	4,7	3,7
Aseguruak eta finantza-zerbitzuak	4,0	4,0	3,3
Zaintza pertsonala, babes soziala eta hainbat ondasun eta zerbitzu	2,2	3,3	3,0

Iturria: INE eta Eurostat.

Enpresen konfiantza sendoagoa da euskal enpresen artean

INEk enpresen konfiantzari buruzko inkestaren emaitzak argitaratu ditu, eta, 2026ko bigarren hiruhilekoan, euskal enpresen datuek tonu positiboa izan dute, nahiz eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, murriztu egin den. Konfiantza indize sintetikoa 135,2 puntukoa izan zen, lehen hiruhilekoan baino 2,5 puntu txikiagoa, baina oraindik ere maila altuetan eta estatuko batez bestekoaren gainetik dago.

Amaitu berri den hiruhilekoaren egoeraren balorazioak indarra galdu zuen. Saldoa 6,5 puntura jaitsi zen 12,9tik, eta horrek erakusten du jardueraren azken aldiko bilakaeraren pertzepzioa oraindik positiboa dela, baina ez hain hedatua. Datorren hiruhilekorako aurreikuspenak argi eta garbi positiboan mantendu ziren, 9,2 puntuko saldoarekin eta 10,5ekoarekin, ziurgabetasun handiko testuinguru batean.

Enpresarien konfiantza indize harmonizatua. Euskadi

2. HIRUHILEKOA

135,2



Amaitu berri den hiruhilekoaz duten iritzia



Hasi den hiruhilekoaz duten iritzia



Enpresarien konfiantza indize harmonizatua. Espainia

2. hiruhilekoa

133,9



Neurritasun profil hori Estatu osoan ere ikusi zen, baina intentsitate handiagoarekin. Enpresa konfiantzaren indize harmonizatua 133,9 puntutan kokatu zen, azken jardueraren pertzepzioaren dinamismo txikiagoko ingurune batean. Izan ere, enpresen konfiantzak behera egin zuen bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoaren aldean, 15 autonomia erkidegotan, eta bitan bakarrik egin zuen gora.

Egokitzapena batez ere amaitutako hiruhilekoaren balorazioan kontzentratu zen, 1,3raino jaitsi baitzen saldoa, eta euskal enpresen kasuan baino narriadura nabarmenagoa izan zuen. Aldiz, sartzen den hiruhilekorako itxaropenak positiboan mantendu ziren, 4,8ko saldoarekin, establezimendu baikorrak apur bat nagusituz ezkorren aldean.

Amaitu berri den hiruhilekoaz duten iritzia



Hasi den hiruhilekoaz duten iritzia



Iturria: INE.

Munduko hazkundea intentsitate desberdinetan hazi da lehen hiruhilekoan

TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA 2026

%5,0



2026ko lehen hiruhilekoaren zati nagusia hazkunde globalaren jarraitutasun testuinguru batean igaro zen, nahiz eta otsailaren amaieratik aurrera, epealdia ziurgabetasun geopolitikoaren bat-bateko gorakadarekin itxi zen. Orduan hasi baitzen Ekialde Hurbileko gatazka energia prezioak eta itxaropen ekonomikoak tenkatzen.

Oraingoz, Txinako ekonomiak ez du eraginik nabaritu. Izan ere, 2026ko lehen hiruhilekoan, urte arteko BPGa %5,0 hazi zen; aurreko hiruhilekoaren aldean bizkortu egin zen eta espero zena gainditu zuen, esportazioen eta industria-produkzioaren dinamismoak bultzatuta. Aldiz, barne kontsumoak eta inbertsioak tonu txikia erakusten jarraitu zuten.

AEBetan ere jarduerak gorantz egin zuen, BPGraen %2,7ko hazkundearekin, azken bost hiruhilekoetako erregistrorik onena. Hazkundea barne eskariaren sendotasunean oinarritu zen, osagai guztien ekarpen positiboekin eta kontsumo pribatuaren paper bereziki nabarmenarekin.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

1. HIRUHILEKOA 2026

%2,7



Euroguneko BPGaren hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasa



Alemaniako BPGaren hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasa



Ezin da gauza bera esan euroguneaz, non ekonomia argiro moteldu zen 2026ko lehen hiruhilekoan. Urte arteko BPGak %0,8 baino ez zuen egin gora, 2025aren amaieran baino lau hamarren gutxiago eta azken urte eta erdiko hazkunderik txikiena. Frantziak tonu oso ahula erakutsi zuen berriz ere, eknomia gelditua, kontsumoaren hauskortasunaren eta kanpo arloaren ekarpen negatiboaren ondorioz, eta aurreko hiruhilekoaren aldean bi hamarren galduta. Alemania ia egonkor mantendu zen, urte arteko %0,3ko hazkundearekin, espero zena baino pixka bat hobeto. Espainia, berriz ere, hazkunde sendoagatik nabarmendu zen, eremu osoaren beheranzko tonutik aldenduz.

Espainiako BPGaren hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasa



Frantziako BPGaren hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasa



Italiako BPGaren hazkundea

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: ELGA, Eurostat eta INE.

NDFk aurreikuspenak jaitsi ditu Ekialde Hurbileko gatazkagatik

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



NDFk aurreikusten du munduko ekonomiak hazkunde moderatua izango duela datozen urteetan, baina ziurgabetasun handiagoko ingurune batek eta gatazkak Ekialde Hurbilean izango duen eraginak baldintzatuta. Erakundearen kalkuluen arabera, BPG globala %3,1 haziko da 2026an eta %3,2 2027an. Tasa horiek 2025ean erregistratutakoak baino zertxobait txikiagoak dira, energia garestitzearen eta arriskuen igoeraren ondorio kaltegarriaren isla; izan ere, teknologia berrietan inbertitzetik eta eskariaren erresilientziatik eratorritako bultzada partzialki konpentsatzen dute ekonomia aurreratu eta garatzen ari diren batzuetan.

NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2025	2026	2027	2026	2027
Munduko ekonomia	**3,4**	**3,1**	**3,2**	**-0,2**	**0,0**
Ekonomia aurreratuak	**1,9**	**1,8**	**1,7**	**0,0**	**0,0**
AEB	2,1	2,3	2,1	-0,1	0,1
Eurogunea	1,4	1,1	1,2	-0,2	-0,2
Alemania	0,2	0,8	1,2	-0,3	-0,3
Frantzia	0,9	0,9	0,9	-0,1	-0,3
Italia	0,5	0,5	0,5	-0,2	-0,2
Espainia	2,8	2,1	1,8	-0,2	-0,1
Erresuma Batua	1,3	0,8	1,3	-0,5	-0,2
Japonia	1,2	0,7	0,6	0,0	0,0
Garatzen ari diren herrialdeak	**4,4**	**3,9**	**4,2**	**-0,3**	**0,1**
Txina	5,0	4,4	4,0	-0,1	0,0
India	7,6	6,5	6,5	0,1	0,1
Errusia	1,0	1,1	1,1	0,3	0,1
Brasil	2,3	1,9	2,0	0,3	-0,3

Ekonomia aurreratuen BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Garatzen ari diren ekonomien BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



AEBetako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Euroguneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazio globalak 2026an eten egingo du beheranzko bidea, eta %4,4 ingurukoa izango da; hau da, urriko aurreikuspenarekiko zazpi hamarreneko berrikuspena egingo da, eta, ondoren, 2027an %3,7ra iritsiko da. Nazioarteko Diru Funtsak azpimarratu du doikuntza-erritmoa desberdina izango dela ekonomien artean: Estatu Batuetan, inflazio helburuarekiko konbergentziak bere horretan jarraituko du, nahiz eta mugazergek gora egin, energiaren prezioen inpaktu mugatuagoaren eta produktibitatearen etengabeko hobekuntzaren ondorioz; eurogunean, berriz, inflazioa helburuaren gainetik egongo da denbora luzeagoan, tentsio energetikoek baldintzatuta.

Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

Taula makroekonomikoa. Eustat

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
BPG	**2,5**	**2,3**	**2,1**	**2,2**	**2,3**	**2,4**	**2,2**
Barneko azken kontsumoa	2,8	2,5	2,4	2,2	2,7	2,6	—
Familien kontsumoa	2,5	2,7	2,6	2,8	2,9	2,6	—
Administrazioaren kontsumoa	3,5	1,7	1,9	0,3	2,1	2,3	—
Kapital eraketa gordina	2,7	4,0	2,3	3,5	4,9	5,2	—
Barne eskaria	2,8	2,8	2,4	2,5	3,2	3,2	—
Esportazioak	0,1	0,4	2,0	0,8	-1,8	0,6	—
Inportazioak	0,4	1,2	2,4	1,3	-0,5	1,8	—
Lehen arloa	4,3	- 0,6	0,6	-0,4	-1,5	- 1,2	—
Industria eta energia	2,0	0,4	0,4	0,1	0,2	0,9	—
Eraikuntza	2,0	3,7	1,7	3,1	5,1	4,9	—
Zerbitzuak	2,9	2,8	2,7	2,8	2,9	2,8	—
Balio erantsi gordina	2,6	2,3	2,1	2,1	2,4	2,5	—
Ekoizkinen g/ zerga garbiak	1,6	2,2	2,3	2,4	2,2	2,1	—
Enplegua	1,5	1,4	1,5	1,4	1,4	1,4	1,3

2024ko aurrerapena eta 2025eko behin-behineko datuak.

Euskal ekonomiaren termometroa. Ekonomia Zuzendaritza

Martxoa

2025									2026		
Apir.	Maia.	Eka.	Uzta.	Abuz.	Iraila.	Urria	Azaroa	Abend.	Urt.	Otsa.	Mar.
93,5	**95,1**	**99,3**	**103,0**	**102,7**	**103,1**	**103,8**	**107,6**	**104,2**	**109,3**	**104,1**	**100,6**

X<50
Atzeraldia

50<X<100
Hazkunde leuna

X>100
Hazkunde bizia

Euskal ekonomiaren termometroa 100,6koa izan zen martxoan, eta hazkunde sendoaren behe-mugaren ingururaino jaitsi zen. Hileko bilakaerak, berriz ere, kanpo merkataritzaren ekarpen ahula islatzen du, esportazioek eta industriak atzera egin baitute, energia prezioen inguruko ziurgabetasunak markatutako testuinguru batean. Jarduerak, hala ere, barne eskariaren bidez eusten dio bere horretan, kontsumoak nabarmen egin baitu gora, nahiz eta inflazioak gora egin duen, eta inbertsioak aldeko joerari eutsi baitio, bultzada txikiagoarekin bada ere. Sektoreen ikuspegitik, hileko dinamismoa eraikuntzan oinarritzen da, eta zerbitzuek, berriz, enpleguaren sorrerarekin lotutako bilakaera positiboari eusten diote.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ZUZENDARITZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2026				2026	2027
	I	II	III	IV		
BPG	2,2	1,9	1,7	1,7	**1,9**	**1,6**
Barneko azken kontsumoa	2,3	2,1	1,9	1,7	**2,0**	**1,6**
Familien kontsumoa	2,3	2,1	1,8	1,6	**2,0**	**1,6**
Administrazioaren kontsumoa	2,1	2,0	1,9	1,8	**2,0**	**1,7**
Kapital eraketa gordina	4,8	3,6	2,2	2,4	**3,3**	**2,3**
Barne eskariaren ekarpena	2,9	2,5	2,0	1,9	**2,3**	**1,8**
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,8	-0,5	-0,3	-0,2	**-0,4**	**-0,2**
Lehen arloa	-0,5	-0,1	1,7	2,0	**0,8**	**2,2**
Industria	0,7	0,8	0,9	1,1	**0,9**	**1,5**
Eraikuntza	4,1	3,3	1,6	1,5	**2,6**	**1,5**
Zerbitzuak	2,6	2,2	1,9	1,7	**2,1**	**1,6**
Balio erantsi gordina	2,2	1,9	1,6	1,5	**1,8**	**1,6**
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,4	1,8	2,2	2,8	**2,1**	**2,0**
Lanaldi osoko lanpostuak	1,2	1,1	1,0	0,7	**1,0**	**0,7**
Landunak (BJA)	1,2	0,8	1,0	1,0	**1,0**	**0,7**
Langabezia tasa	6,6	6,2	6,7	6,2	**6,4**	**6,2**

EAEKO BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2026	2027		2026	2027
Hispalink	2,3	2,1	AIReF	1,9	1,7
Confebask	2,1	—	**Eusko Jaurlaritza**	**1,9**	**1,6**
BBVA	2,0	2,8	Laboral kutxa	1,8	—
Euskal Ganberak	2,0	—	Ceprede	1,6	2,2

ESTATISTIKA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
BPG	**3,5**	**2,8**	**3,1**	**2,9**	**2,7**	**2,6**	**2,7**
Kontsumo pribatua	3,0	3,3	3,8	3,4	3,1	3,1	3,2
Kontsumo publikoa	2,9	2,4	2,4	2,5	2,3	2,5	2,0
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,6	5,8	4,5	4,9	7,7	6,2	5,6
- Aktibo finko materialak	3,3	6,0	4,4	5,1	8,1	6,2	5,2
- Eraikuntzan	4,0	5,2	2,6	3,4	7,3	7,5	6,0
- Ekipamendu ondasunetan	1,9	7,4	8,0	8,2	9,8	3,7	3,8
- Landutako baliabide biologikoak	6,0	6,9	7,8	7,0	6,4	6,4	6,0
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,6	5,3	4,7	4,2	6,0	6,2	6,8
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	3,6	3,6	3,5	3,8	3,4	3,4
Esportazioak	3,2	3,6	3,4	4,1	3,1	3,7	0,9
Inportazioak	2,9	6,2	5,3	6,4	6,6	6,6	3,1

BPGaren aurreikuspenak. Beste erakunde batzuk

Urte arteko aldakuntza tasa

	2026	2027		2026	2027
AFI	2,6	2,3	ICAE-UCM	2,3	2,2
Equipo Económico (Ee)	2,5	2,1	Mapfre Economics	2,2	1,9
Oxford Economics	2,5	2,1	CEPREDE-UAM	2,2	2,0
BBVA Research	2,4	2,4	Repsol	2,1	1,8
CaixaBank Research	2,4	2,0	Instituto Estudios Económicos	2,1	1,8
CEEM-URJC	2,4	2,0	Intermoney	2,1	1,8
Funcas	2,4	1,8	**Consenso (media)**	**2,3**	**2,0**
Metyis	2,4	2,1	AIReF (urtarrila 2026)	2,4	—
Santander	2,4	2,0	EB (azaroa 2025)	2,3	2,0
Universidad Loyola Andalucía	2,4	2,0	NDF (apirila 2026)	2,1	1,8
EthiFinance Ratings	2,3	2,0	Gobernua (azaroa 2025)	2,2	2,1
Cámara de Comercio de España	2,3	2,0	Espainako B. (abendua 2025)	2,2	1,9
CEOE	2,3	1,8	ELGA (apirila 2026)	2,1	1,7

Iturria: Funcas.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2024	2025	2025				2026
			I	II	III	IV	I
AEB	2,8	2,2	2,0	2,1	2,3	2,0	2,7
Txina	5,0	5,0	5,4	5,2	4,8	4,5	5,0
Japonia	-0,2	1,2	1,6	2,0	0,7	0,5	—
Kanada	2,0	1,7	2,9	1,8	1,6	0,7	—
Europar Batasuna	1,1	1,5	1,7	1,7	1,7	1,4	1,0
Eurogunea	0,9	1,4	1,6	1,6	1,4	1,3	0,8
Alemania	-0,5	0,2	0,3	0,4	0,3	0,4	0,3
Frantzia	1,2	0,8	0,6	0,8	1,0	1,3	1,1
Erresuma Batua	1,1	1,4	1,8	1,4	1,3	1,0	—
Italia	0,8	0,5	0,6	0,4	0,7	0,9	0,7
Herbehereak	1,1	1,8	2,4	1,6	1,6	1,6	1,3

Iturria: Eurostat eta ELGA.

CONSENSUS FORECAST. 2025EKO APIRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2026	2027	2026	2027	2026	2027
AEB	2,1	2,2	3,2	2,4	4,5	4,4
Japonia	0,7	0,9	2,1	2,0	2,5	2,5
Kanada	1,1	1,9	2,7	2,0	6,6	6,2
Europar Batasuna	1,2	1,5	2,6	2,1	—	—
Eurogunea	0,9	1,3	2,7	2,1	6,3	6,2
Alemania	0,7	1,3	2,7	2,2	6,3	6,0
Frantzia	0,9	0,9	1,8	1,6	7,9	7,8
Erresuma Batua	0,6	1,1	3,1	2,5	5,4	5,4
Italia	0,5	0,7	2,7	1,9	5,7	5,7
Espainia	2,2	1,9	2,9	2,1	9,9	9,6
Herbehereak	1,3	1,2	3,0	2,3	—	—

Iturria: Consensus Forecast.